

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 328/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundean 2020rako ordainsariak ehuneko 2 igotzea, 2019koen aldean

Urtarrilaren 21eko 02/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onetsi ziren.

Aipatutako Errege Lege Dekretuak adierazten du zioen azalpenean 2018ko Aurrekontuen luzapen egoera gaur egun edonola mantentzen dela ere, arau hau onartzea beharrezkoa da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak handitzea ahalbidetzen duena, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta honakoa ezartzen du 3. artikuluko Bi apartatuan:

“2020an, sektore publikoan lanean ari direnen lansariak ezin izango dira 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 2 baino gehiago gehitu. Lansari horiek homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira erkaketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinasunari dagokienez.”

Abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua 2020rako Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeko 25.1 artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako langile funtzionarioen eta lan kontratadun langileen 2020rako ordainsari osoak gehitu egingo dira Foru Arau honetan ezarritakoarekin bat, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean. Ordainsari horiek homogeneotasunez kalkulatu dira erkaketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinasunari dagokienez, eta, betiere, Estatuaren oinarriko legedian ezarritako mugak gainditu gabe.”

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateratuko 37. artikulua arautzen duen negoziazioko izapidea bete da, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluarekin harremanetan.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainare 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Diputatuen Kontseiluari proposatzea erakunde autonomoari atxikitako langileei aplikatu beharreko ordainsari araubidea eta soldata baldintzak.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.17 artikulua, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 7. eta 9. Artikuluetan xedatutakoarekin harremanetan.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren Kudeaketari eta Deszentralizatutako Foru Zerbitzu Publikoari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren

18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zurretiko txostena eskatu da.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeko langileen ordainsari orokorrak eta antzinasuna 2019ko ordainsarien ehuneko 2 handitzea onartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Foru Gobernuaren Kontseiluari otsailaren 11ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 73/2020 erabakiaren bidez 2020. urterako ezarri duen Gazteriaren Foru Erakundeko langileen produktibitatea hobetzeko funtsa ehuneko 2 handitzea onartzea.

Hirugarrena. Foru dekretu honek Gobernu Kontseiluak onartuko hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzearen den kontuan hartu gabe.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

PABLO DE ORAÁ OLEAGA